

16/04 IRIZPENA

Maite Alonso, lehendakaria
Xabier Aizpurua
Juan Carlos Jauregui
Amaia Jauregiberri
Isabel Kapanaga
Antxon Rodríguez
Raimundo Rubio
Eva Blanco, Idazkari teknikoa

Euskadiko Eskola Kontseiluaren Batzorde Iraunkorraren 2016ko maiatzaren 24ko bilkurara bazterrean aipatutako kideak joan ziren. Batzorde horrek adostasunez eman du ondoko **irizpena**: EAEko Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikastetxeetan ikasketa artistiko profesionalak egiten dituzten ikasleen ebaluazio prozesua, akreditazio akademikoa eta mugikortasuna arautuko duen Agindu proiektuari buruzkoa.

I. AURREKARIAK

Maiatzaren 3ko Hezkuntzako 2/2006 Lege Organikoak irakaskuntza artistiko profesionalen barruan sailkatzen ditu arte plastikoetako eta diseinuko ikasketak, eta prestakuntza espezifikoko zikloetan antolatzen ditu, zeintzuen helburua baita ikasleei kalitatezko prestakuntza artistikoa ematea eta arte plastikoen eta diseinuaren sektorean ariko diren etorkizuneko profesionalen gaikuntza bermatzea.

Euskadiko Autonomi Estatutuaren 16. artikulua Autonomia Erkidegoari ematen dizkio irakaskuntza arloko eskumenak.

Maiatzaren 4ko 596/2007 Errege Dekretuak, zeinaren bidez ezartzen baita arte plastikoetako eta diseinuko ikasketa profesionalen antolamendu orokorra, 5. artikuluan definitzen du arte plastikoetako eta diseinuko ikasketa profesionaletako tituluen egitura.

5b artikuluan zehazten du titulu horien profil profesionala, zeinak barne hartuko baititu gaitasun orokorra, gaitasun profesionalak eta, hala badagokio, titulek barne hartzen dituzten Kualifikazio Profesionalen Katalogo Nazionaleko kualifikazioak.

13. artikulua ezartzen du Hezkuntza Administrazioek ezarriko dituztela titulu bakoitzari dagozkion curriculumak, betiere titulu bertan eta titulu bakoitza erregulatzen duen araudian ezarritakoa errespetatuz.

EAEn argitaratuta daude arte plastikoetako eta diseinuko teknikari eta goi-mailako teknikari titulei dagozkien curriculumak ezartzen dituzten dekretuak, espezialitate hauetan: Argazkigintza, (EHAA 2014-10-13), Publizitate grafika, (EHAA 2014-10-9), Ilustrazioa (EHAA 2014-07-30) eta Animazioa (EHAA 2014-10-13).

II. EDUKIA

Dekretu proiektu honek 31 artikulua dauzka 4 kapitulutan sailkatuta, 3 xedapen gehigarri, hiru xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat, azken xedapen bat eta 11 eranskin.

I. Kapituluak (1 eta 2. artikulua) dekretuaren xedea eta aplikazio eremua jasotzen ditu.

II. Kapituluak (3-19. artikulua) ebaluazio prozesuaren garapenari buruzkoa da:

3-9. bitarteko artikuluek ebaluazioarekin lotutako gaiak arautzen dituzte: ebaluazioaren xedea eta izaera, ebaluazio prozedurak eta tresnak, ebaluazio organoak eta saioak, eta amaierako ohiko eta ez-ohiko ebaluazioaren ezaugarriak.

10. artikulua enpresetan, estudioetan edo tailerretan egiten den prestakuntza praktikoa arautzen du eta 11. artikulua, berriz, proiektu integratua. 12. artikuluan nazioarteko mugikortasun programetan parte hartzen duten ikasleak aipatzen dira.

13 eta 14. artikulua kalifikazioei, modulu progresiboei eta ikasketa plan zaharragoetatik datozen ikasleen ereduak aitortzeari buruzkoak dira.

16-19. bitarteko artikuluek hainbat alderdi aipatzen dituzte baliokidetzeari, salbuespenei, ebaluazioaren informazio eta objektibotasunari eta ebaluazio emaitzen erreklamazioari buruz.

III. Kapituluak (20-24. artikulua) jasota daude ikasleen promozioa, deialdi kopurua, deialdiari uko egitea, titulazioa eta prestakuntza zikloaren amaierako batez besteko nota.

IV. Kapituluak (25-31 artikulua) ebaluazio dokumentu ofizialei buruzkoa da: espediente akademiko pertsonala, ziurtagiri akademiko pertsonala, ebaluazio akta eta bakarkako ebaluazio txostena. Azkenik, 31. artikulua ikasleen mugikortasunari buruzkoa da.

Lehen xedapen gehigarriak datuen babeserako araudia aipatzen du. Bigarrenak irisgarritasun unibertuala eta hirugarrenak dokumentazio akademikoaren informatizazioa.

Lehen xedapen iragankorrak hasita dauden ebaluazio prozesuak arautzen ditu. Bigarrenak LOGSEk araututako irakaskuntzen aplikagarritasuna arautzen du eta hirugarrenak, berriz, LOGSEri jarraiki hasi diren eta gaur egun titulaziorik gabe geratu diren ikasketen amaiera-prozedura.

Xedapen indargabetzaileak indarririk gabe uzten du 2005eko uztailaren 19ko Agindua, zeinaren bidez arautzen baita EAEko Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikastetxeetan ikasketa artistiko profesionalak egiten dituzten ikasleen ebaluazio prozesua, akreditazio akademikoa eta mugikortasuna.

Azken Xedapenak dio noiz sartuko den indarrean agindua.

11 eranskinek ebaluazio dokumentuen ereduak jasotzen dituzte.

III. BALORAZIO ETA PROPOSAMENAK

Dekretu proiektu honen helburua da ebaluazio prozesu komun bat arautzea Euskal Autonomia Erkidegoan eskaintzen diren Arte Plastikoetako eta Diseinuko Irakaskuntza Artistiko Profesionalen espezialitate desberdinetako titulu guztientzat.

2013an Kontseiluak hainbat irizpen egin zituen espezialitate desberdinen curriculumak ezartzen dituzten dekretuei buruz. Irizpen haietan adierazi zuen arautu gabe gelditu zirela zenbait alderdi orokor, esaterako, ebaluazioa eta promozioa, ikasketetan sartzeko irizpideak, edota sarrera froga egiteko salbuespenak.

Batzorde Iraunkorraren iritziz, positiboa da ebaluazioa arautzea, baina, era berean, uste du garrantzitsua dela orobat sarrera frogari dagokion guztia arautzea, zeren une honetan Berrikuntzako Zuzendariak emandako argibide batzuk baino ez baitaude eta horien bidez egiten baita probarako deialdia.

Kontseiluaren iritziz, oro har positiboa da ebaluazioari arauan eman nahi zaion orientazioa, hau da, irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuan integratua, etengabea, pertsonalizatua eta hobekuntzara orientatua.

Artikuluei buruzko oharra:

- **3. artikulua. Ebaluazio prozedurak eta tresnak:** artikulua honen 3. atalean publiko egin behar diren zenbait alderdi aipatzen dira, zehazki, ondoko hauek: ebaluazio irizpide propioak eta ikasleak promozionatzeko eta titulua lortzeko baldintzak.

Alderdi hori definituta dago ebaluazioen informazio eta objektibotasunari buruzko 18. artikuluan, non zerrendatuta baitago zein alderdi eman behar diren ezagutzera, ikasleak objektiboki ebaluatua izateko duen eskubidea bermatzeko. Hala, aipatuta eta definituta daude, besteak beste, *programazio laburtuak eta oinarrizko ebaluazio tresnak eta uneak*. Horiez gain, 3. artikuluan ere aipatzen dira “prozedurak eta tresnak”.

Kontseiluaren ustez, hobe litzateke 3. artikuluko 3. atala ezabatzea edota eduki hori 18. artikuluan adierazitakoarekin bateratzea.

Bestalde, publiko egin behar diren alderdien zerrendan hauxe sartzea proposatzen du Kontseiluak: errekerperazio prozedura eta horretarako aurreikusitako laguntzak.

- **7. artikulua. Ebaluazio saioak:** Kontseiluaren ustez, irakasle taldeak hartuko dituen erabakiak zerrendatzen dituen 5. atalak ez dio ezer gehitzen testuari, argiago definituta baitaude hurrengo artikuluetan. Bestalde, b) *Errepikatzea edo ikasturte berean gelditzea* azpi-atalean, ez dugu desberdintasunik ikusten bi terminoen artean.

- **8. artikulua.** Artikulu horren 1. atalaren idazkera ez da egokia zati honetan: “ikasleen lorpenak modulu bakoitzerako ezarritako **gaitasun terminalen** arabera kalifikatuko dira”.

Kontseiluaren ustez, eta 4.3 artikuluekiko koherentzia mantentzeko, egokiagoa litzateke helburuak (gaitasun, trebezia eta abilezia bezala adierazita) eta ebaluazio irizpideak aipatzea, tituluen curriculumetan ez baitira inon aipatzen gaitasun terminal horiek.

Bukatzeko, 1. artikulua izendapenean akats bat dago. “Xedea” deitu beharko litzateke edo, “Xedea eta aplikazio eremua” izena mantendu nahi izanez gero, 1 eta 2. artikulua batu beharko lirateke.

Irizpen hau zure erabakiaren menpean geratzen da.

Bilbon, 2016ko maiatzaren 25ean

IDAZKARI TEKNIKOA

Sin.: Eva Blanco Ochoa

Ikus-Onetsia

PRESIDENTEA

Sin.: Maite Alonso Arana

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILBURUA